# 2. AKTA

**EZOHIKO UDALBATZARRA**, 2005eko otsailaren 16an izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta bosteko otsailaren hamaseian.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira:

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.
Rafaela Romero Pozo a.
Lucía Querido Noceti a.
Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

Jose Luis Goikoetxea Garmendia j.
Jose Manuel Anso Martínez j.
Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j.
Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a.
Mariví Roteta Mujika a.
Aitor Larrañaga Burguera j.

EB-IU-tik

Jesús Mª García Garde j.
Fco. Javier Pombo González j.

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j.
José Luis Mtez. de Espronceda Luiña j.

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez du ezin etorria justifikatu Juan Ramon Gonzalez Medrano atxiki gabeko zinegotziak. Halaber, bilkura honetan izan da Karmele Lizaso Ubera andrea, behin-behineko kontu-hartzailea.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

**1.- EB-IUk eta PPk Europar Konstituzioari buruz aurkeztu dituzten mozioak.**

EB-IU eta PP taldeek mozio bana aurkeztu dute:

**EB-IUren mozioa**

Pasaiako Ezker Batua - Berdeak-ek otsailaren 20ko erreferendumean bozkatuko den Itun Konstituzionalaren aurkako MOZIO hau aurkezten du batzarrean eztabaidatzeko:

**AZALPENA**

Europako Konstituzioaren proiektua sinatzeko asmoz, Europako Batasuneko gobernuetako eliteen arteko adostasuna lortu omen denean, euskal hiritarrei azaldu nahi diegu zein den itun horren oinarrizko edukia. Izan ere, etorkizunean indarrean sartzen bada, oztopo handiak jarriko dizkio mundu mailan eskubideen globalizazio etikoaren aldeko mugimendua eratzen ari den beste Europa horren aldeko borrokari.

Ezker Batua - Berdeak ez dator bat Itun Konstituzionalarekin, Europako herri eta hiritar gehienen interesen aurkakoa den sistema neoliberal eta elitista europarra konstituzionalizatuko duelako, AEBekin lehiatuko den Europa inperialista sortu nahi duen eredua, hain zuzen ere.

Gure gaitzespenaren arrazoiak honako dekalogo honetan labur daitezke:

1. Prozesuaren oinarria ez da izan Europako Batasuneko hiritarrek Europar Parlamentura emandako agindua, ez da izan Batzar eratzaile honi proiektua garatzeko egindako eskaera. Ondoren, hiritarrek eta euren ordezkari diren erakundeek ez dute eztabaidatzeko eta zuzentzeko aukerarik izan, eta, amaitzeko, estatu kideetan ez da erreferendumik egin prozesu honi jarraituz.

2. Eredu ekonomiko neoliberala inposatzen duenez, eragozpen handiak sortzen dira "hegoaldearekin" harremanak ezartzeko politikak eta gizartea edo ingurumena bultzatzeko politikak garatzean. Horrela, bada, Europako Batasunean bertan eta Europako Batasunetik kanpo ez dago kapitalen mugimendu askea inolaz ere murrizterik, eta zerbitzu publikoak pixkanaka-pixkanaka desagerraraziko dira.

3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ez da errespetatu beharreko printzipio eta baliotzat hartzen. Izan ere, sustatu beharreko helburua baino ez da, Emakumeen Europako Batzarrak adierazi duen bezala.

4. Elizei lehentasunezko tratamendua eskaintzen zaienez, zenbait erakunde erlijiosori pribilegioak ematen zaizkie, kristauei, batez ere.

5. Oinarrizko eskubideen gutuna estatu kideetan onartzen diren eskubideen onespen “eskasa” baino ez da. Praktikan, ordea, ez dira oinarrizko eskubideen ezarpena eta betearazpena bermatzen; esate baterako, lanerako eskubidea, bidezko soldatarako eskubidea, langabeziari aurre egiteko babeserako eskubidea edo zahartzaroko edo alarguntzako pentsioa jasotzeko eskubidea. Horrez gain, egoera are larriagoa da, gizarte eta zerga arloko erabakiak aho batez hartu behar direla kontuan izanez gero.

6. Askatasun politikoak eta zibilak merkatuko askatasun ekonomikoaren eta “segurtasuna” ulertzeko modu polizial eta penalagoaren menpe daude.

7. Ez du gerraren aurkako berariazko adierazpenik egiten, eta estatu kideei eskatzen die euren ahalmen militarra sendotzeko. Era berean, armen, ikerketaren eta ahalmen militarren agentzia europarra eratzen du, eta NATOren esparruan hartutako konpromisoak onartzen ditu.

8. Ez du Europako Batasuneko estatu kide askotako nazio aniztasuna onartzen. Estatuetako “lurralde-osotasuna” errespetatzeko eskatzen du, eta autodeterminaziorako eskubidea ukatzen die eskaera hori egiten duten herriei. Era berean, ez du euskararen eta Europako hizkuntzalaritzako eta kulturako ondarea aberasten duten beste hizkuntza gutxitu batzuen ofizialtasuna onartzen.

9. Ez ditu “bizilekua duten hirugarren herrialdeetako nazionalentzako” erabateko hiritartasun-eskubideak onartzen.

10. Erakundeen arkitektura berrian, ez ditu boterea kbenetan banatzen. Europako Banku Zentralaren autonomia sendotzen du, eta, oraindik ere, estatuetako gobernuak Europako Parlamentuaren gainetik daude.

Azken batean, konstituzio blindatua da, eta estatu kideek ia-ia aho batez hartu behar dute aldatzeko erabakia. Hori dela eta, argi eta garbi dago ez dutela demokraziaren aldeko eta neoliberalismoaren aurkako zentzuan aldatzeko edo berrikusteko inolako asmorik. Esandako guztia kontuan hartuta, honako hau proposatzen du Ezker Batua - Berdeak-ek:

## MOZIOA

Pasaiako Udalak:

1. Europar Parlamentua oinarri izango duen bestelako prozesu kontituzioegilera deitzen du, batzar hau, europar hiritargoak sufragio zuzen eta unibertsalaren bitartez aukeratutako erakunde bakarra izanik. Era honetan, herritarren ordezkari parlamentarioak eta herri guztiak aportazioak egingo dizkiote Itun Konstituzionaleren borradoreari eta berau herritarren eta herrien ekarpenen adierazpen demokratikoa bilakatuko da, azkenean, europarren nahiak era erreal eta arrazoizkoan jasoko dituena.

2. Era berean, adierazi egiten du konpromiso irmoa duela beste Europa batekin eta honako ezaugarri hauek dituen beste prozesu eratzaile batekin:

    - Erresidentzian oinarritutako hiritar eskubideari lehentasuna eman beharra dio, berau oinarri izanik gainontzeko eskubide zibil, sozial eta laboral egikera praktikorako. Era berean, apustu irmoa egin behar du zergapen zuzenaren harmonizazio gehikorrean oinarritutako Europa sozialaren alde, hartu beharreko lehen gizarte-neurria da-eta. Horrez gain, aipatutako eskubide multzo guztiak gora begira berdindu behar ditu.

    - Espreski herrien autodeterminaziorako eskubidea onartu behar du, eta berorrekin batera, euskararen eta Europako hizkuntzalaritzako eta kulturako ondarea aberasten duten beste hizkuntza gutxitu guztien ofizialtasuna onartu beharra du.

    - Hegoaldeko eta ekialdeko herriekiko garapenerako lankidetzan sakondu behar du. Hori dela eta, AEBei eta kolonizatzeko modu berriei aurre egiteko aukera monetarioa, ekonomikoa edo militarra barik, aukera solidarioa izan behar da. Alde horretatik, herrialde txiroei kanpo-zorra altxatu behar die berehala eta espekulaziorako kapitalaren gaineko zerga orokorra ezarri behar du.

    - Gerra bera berariaz gaitzetsi behar du, ez delako nazioarteko gatazkak konpontzeko tresna egokia. Beraz, NATO eta antzeko itun militarrak desegiteko prest dagoen armarik gabeko Europa bakezalearen eta desmilitarizatuaren alde egin behar du.

    - Kiotoko protokoloa zorrotz bete behar du, eta zentral nuklear guztiak ixteko eta energia berriztagarriak sustatzeko plana ezarri behar du. Bide batez, Hondakin Solidoen errausketa debekatuko du eta garraio pribatuaren aurka, mugikortasun sostengarria eta garraio publikoa gogoz indartuko ditu.

3. Adierazi egiten du Estatu espainolean otsailaren 20ko erreferendumean bozkatuko den Europako Itun Konstituzionalaren aurka dagoela.

**PPren mozioa**

Guillermo Sánchez-Berra Quintana jn.ak, Pasaiako Udaleko Alderdi Popularreko ordezkariak, Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiko 97/3 artikuluan xedatutakoarekin bat, ondoko mozioa aurkezten du udalbatzarrean eztabaidatzeko:

MOZIOA

Pasa den urriaren 29an Erromako Kapitolioan Europako Konstituzioaren Ituna sinatu zen, orain dela hamarkada batzuk hasitako prozesu luze eta nekezari amaiera eman zitzaion horrela. Europar Komunitatea sortzeko lehenengo urratsa Frantziako atzerri ministro Robert Schuman-ek eman zuen 1950eko maiatzean: ikatz eta altzairuaren ekoizpena kudeatu eta integratzeko Frantzia eta Alemaniaren plan bat abian jarri zuen; horren ondorioz, 1951n Pariseko Ituna sinatu zuten eta IAEE (Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoa) sortu zen. Ondoren, 1955ean Messinako Konferentzian lortutako akordioen ondorioz, 1957ko martxoaren 25ean “seiek” Erromako Itunak sinatu zituzten, horien bidez Europako Ekonomia Erkidegoa (EEE) eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa (EURATOM) sortu ziren.

Europa eraikitzeko prozesuan beste gertakizun garrantzitsu batzuk ere izan dira: 1986an Europako Akta Bakarra onartu zen; 1992an Mastricheko Ituna, itun horrekin hasierako helburu ekonomikotik haratago joan ziren lehen aldiz; izan ere, hasierako helburua merkatu batua eraikitzea zen eta itun horrek batasun politikorako bidea ematen du. Ondoren, 1997an Amsterdameko Ituna onartu zen eta 2001ean Nizako Ituna. Europar Batasuna bere mugak zabalduz joan da; hasieran sei herrialdek sinatu zuten ituna (Alemania, Frantzia, Belgika, Italia, Luxenburgo eta Herbehereak), eta gero handitzen joan da gaur egungo Batasuna –25 herrialdek osatua– sortu arte, Espainia 1986an sartu zen eskubide osoko kide gisa.

Jakin badakigu herritarrek Europako politika eta erkidegoko erakundeak oso urrunekotzat dauzkatela; baina herritarrei zuzenean eragiten dieten erabaki asko hartzen da erkidegoan, esaterako interes-tasak EBZren bidez ezartzea. Europaren eraikuntzan parte hartzeak ekonomia-hazkunde garrantzitsua ekarri dio Espainiari, urte hauetan erkidegotik jaso dituen funtsei esker. Horren ondorioz izan duen garapenagatik, Espainia Batasuneko herrialdeetan aurrenekoen artean dago ongizateari dagokionez. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da administrazio guztien konpromisoa, Europako eraikuntza-prozesuan parte hartzeak duen garrantziaz herritarrak kontzientziatu eta motibatzeko, politika isolazionistetatik urrunduz.

Europako Konstituzioa, bere hizki txikietan egon daitezkeen ezberdintasunak ezberdintasun, oso ondo eratutako testu juridiko bat baino gehiago da. Osatzen duten nazioen arteko solidaritatean oinarritzen den proiektu komun batean parte hartzea, pixkanaka subiranotasuna –edozein nazioren oinarria– lagatzea, eta gaur egun existitzen den hizkuntza, kultura, ideologia eta erlijio mosaikorik handienean sartzea; hori guztia esan nahi du. Gainera, Europako Batasuna askatasun eta aukeren espazio handia da, eta pertsonak askatasunez ibili ahal izateak, Batasuneko edozein herrialdetan berdintasunezko herritar egiten gaitu.

Azkenik, Itun Konstituzionala berrestea are beharrezkoagoa da gure herrian. Europako Konstituzioa berme bat da proiektu nazional eta europar baten partaide izateko borrokatu diren eta borrokatzen jarraitzen dutenentzako, proiektu isolazionista eta lokalisten aurrean. Konstituzioaren testuak bertako kide diren estatuen lurraldetasunaren osotasuna bermatzen du eta Europako Proiektuaren lurralde-egituraketa arriskuan jar dezakeen edozein saiakera sezesionista arbuiatzen du.

Horregatik guztiagatik, udaleko Talde Popularrak ondoko akordioa aurkezten du udalbatzarrean eztabaidatu eta onartzeko:

AKORDIOA

LEHENA.- Pasaiako Udaleko taldeek publikoki adierazten dute Europako Konstituzioaren alde daudela eta ondoko konpromisoa hartzen dute: batetik, gure udalerrian sentsibilizazio-kanpaina bat egitea konstituzioa berrestearen alde; eta bestetik, udalak dituen bitartekoekin herritarrei jakinaraztea Espainiaren aurrerapenean eta espainiar guztien ongizatean Europako Konstituzioa onartzeak ekarriko dituen abantaila eta onurak.

Pasaian, 2005eko urtarrilaren 17an. Sinatua eta izenpetua. Guillermo Sánchez-Berra Quintana. Pasaiako PP-ko eleduna."

Aurreko mozioak eztabaidatu aurretik, Udalbatzak, bertan dauden zinegotzien gehiengoz eta euren proposamenak elkarri aditu ondoren, ondokoa

ERABAKI DU

<u>Adostutako mozioa</u>

“Pasaiako Udalbatzak publikoki adierazten du Europako Itun Instituzionalaren alde dagoela, Itun horrek hainbat baliotan oinarritutako Europa eraikitzen lagunduko duelako, hala nola: balio demokratikoen aitorpen eta sustapena, oinarrizko eskubideak eta eskubide sozialak, garapen iraunkorra eta solidaritatea.

Beraz, Udalbatzak pasaitarrei ondokoa eskatzen die: datorren otsailaren 20an izango den Europako Itun Instituzionalaren erreferendumean baiezko botoa eman dezatela.”

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau izan da:

  - EB-IUren mozioa errefusatu egin dute: EB-IU taldeko 2 zinegotziek alde bozkatu dute eta PSE-EE (5), EAJ-PNV (4) eta PP (2) taldeetako 14 zinegotziek aurkako botoa eman dute.

  - Adostutako mozioa onartu egin dute: PSE-EE (5), EAJ-PNV (4) eta PP (2) taldeetako HAMAIKA zinegotziek aldeko botoa eman dute, EA taldeko HIRU zinegotziek aurkako botoa eman dute eta EB-IUko BI zinegotziak abstenitu egin dira.

- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:

  - Jesús Mª Garde jn.ak, EB-IUren izenean, adierazi du bere taldeak Konstituzio Itunari ezetza eman diola funtsean estatuek eta ez legebiltzarrak aurkeztu dietelako herritarrei, eta era horretan herritarrei aurrez eztabaida egiteko aukera lapurtu diete. Gainera, uste dute Itunean badirela hainbat baldintza egon behar ez luketenak, atzerakoiak direlako; izan ere kapitalismoa eta liberalismoa goratzen dute, iparraldearen eta hegoaldearen arteko aldeak, herritarrek askatasunez mugarik gabe ibiltzeko duten eskubidea ukatuz, hizkuntzak eta horien garapena ukatuz eta autodeterminazio eskubidea ukatuz. Horrez gain, ez dago gizon eta emakumeen eskubide berdintasunaren aitorpen esplizituurik; elizen pribilegioak mantentzen dira, bereziki eliza kristauenak; lehendik zeuden itunak berresten dira, NATOrena esaterako, Euskal Herriaren ezetza jaso zuena.

  - Ondoren, talde popularreko eledun Guillermo Sánchez-Berra jn.ak bere taldeak aurkeztutako mozioan jasotzen diren argudioak emandakotzat jo ditu.

  - Rafaela Romerok, PSE-EEren izenean, adierazi du Europako Ituna positiboa dela dauzkan baloreengatik eta horregatik bere taldea ezin dela bat etorri EB-IUk aurkeztutako mozioarekin; hala ere, PPren mozioarekin ere ez datoz bat, aurkezteko moduagatik. Horri dagokionez, Hauteskunde Batzar Zentralaren akordio bat irakurri du eta bertan adierazten

denez, udalek ezin dute kanpaina egin aukera baten edo bestearen aldeko iritzia azalduz. Horregatik, PSE-EE, PP eta EAJ-PNV taldeek Donostiako udalean sinatutako akordio-proposamena aurkeztu du.

- EAJ-PNV zinegotzi-taldeko José Luis Goikoetxea jn.ak adierazi du Itun bat dela eta ez Europar Konstituzioa eta haren taldeak PSE-EEk aurkeztutako mozio adostuaren aldeko bozka emango lukeela, PPk bere mozioa kenduko balu.

- EAko zinegotzi-taldearen eledun Miriam Cano and.ak adierazi du bere taldea ezezkoaren alde badago ere, ezin duela EB-IUren mozioarekin bat egin, gauza asko nahasten dituelako.

- PPko zinegotzi-taldeko eledun Guillermo Sánchez-Berra jn.ak adierazi du berak ez duela bere taldearentzat inolako protagonismorik nahi, Itunari baiezkoa ematearen alde dagoela eta beraz, beren mozioa kenduko dutela.

**2.- 2005eko aurrekontua**

Ondoko arau eta legeak kontuan hartu dira: Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 47.2 l) artikulua, bertan zehazten dira korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar duten arloak; abenduaren 16ko 57/2003 Legea, Tokiko Gobernua Modernizatzeko neurriei buruzkoa; eta abenduaren 28ko 39/1988 Legea, Tokiko Ogasunak Arautzen dituena. Bertan dauden zinegotzien gehiengoz –era berean korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa osatzen dutenak– eta Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 9ko irizpenaren bidez proposatuta, Udalbatzak ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea Pasaiako Udalaren 2005eko Aurrekontu Orokorrari, Ogasun eta Ondareko Batzordeak 2005eko otsailaren 9an egindako irizpenean jasotzen den moduan, akta honetan adierazten diren aldaketekin.

BIGARRENA.- Behin-behineko akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta espedientea jendaurrean jartzea hamabost egunetan, interesdunek aztertu eta udalbatzarrean erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

HIRUGARRENA.- Behin-behineko onarpena behin betiko bilakatuko da baldin eta udalbatzarrean alegaziorik aurkezten ez bada. Hori guztia abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1.artikuluarekin bat, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoa.

- Ondoren, alkateak ondoko testua irakurri du:

“Los Presupuestos públicos son el núcleo duro de la política, y ello, porque sólo lo que cuenta con financiación puede traducirse en política de hechos.

La historia de los debates sobre Presupuestos públicos enseña muchas lecciones sobre la forma de hacer política por las diferentes organizaciones políticas.

Este presupuesto que hoy se presenta, también mostrará hoy, AQUÍ, la forma de hacer política de cada cual.

Estamos ante el segundo presupuesto de la legislatura, presupuesto éste que se corresponde tanto con la coyuntura política como histórica que vive nuestra localidad.

Estamos ante un Presupuesto, Y ME ATREVO A DECIRLO, HISTORICO. La magnitud de las inversiones que contiene el mismo, representa un hito en la historia de nuestra capacidad de transformación y gracias también a fuentes de financiación que traen fecha de caducidad, y RECALCO, con fecha de caducidad.

Los importantes y diferentes programas de Rehabilitación Urbana, URBAN, PERCO, IZARTU, FEDER, ZONAS DEGRADADAS son las razones del incremento del presupuesto sobre el ejercicio anterior.

En materia de inversiones, este Presupuesto coloca al Ayuntamiento en el momento de mayores inversiones previstas de toda su historia, lo que le confiere a este Presupuesto un carácter absolutamente TRASCENDENTAL. Para esta Alcaldía, lo que hoy constituye un hecho excepcional, debiera ser una constante en los Presupuestos de Pasaia. Disponer de una tercera parte de sus presupuestos, al menos, para las inversiones, debiera concebirse como el destino natural y razonable de sus recursos. Sin embargo, y lo digo con tristeza, estos presupuestos no tendrán muchas posibilidades de ser reeditados en términos parecidos. Mucho tendrá que mejorar la Financiación Municipal, aspecto que por ahora, NO VISLUMBRO.

Es por lo tanto mi deseo, REMARCAR la importancia de los presentes presupuestos y su incidencia en la mejora de nuestro hábitat urbano y de nuestra calidad de vida. No es, ni pretendo que sea, una expresión retórica, sino la constatación de una evidencia que no se puede ni se debe obviar.

Indudablemente, no QUIERO y además NO DEBO OCULTARLO hay que acudir al endeudamiento. Y lo asumo hay que acudir al endeudamiento para llegar recursos financieros para las inversiones. Pero ello, “NO NOS HAGAMOS TRAMPAS EN EL SOLITARIO”, y quien no se haya enterado, poco conoce las disponibilidades de recursos de este Ayuntamiento, es una constante en nuestro Ayuntamiento. Ello junto con la financiación externa, hará posible transformaciones importantes y necesarias.

Deseo mostrar mi agradecimiento a los grupos políticos que vana respaldar este presupuesto, pues las verdaderas bondades del mismo, no son para gloria de este Gobierno, sino de las necesidades reales de los pasaitarras con los medios disponibles para atenderlas, que por supuesto, nunca serán suficientes.

Finalmente, y ya para concluir, decir que estamos ante un Presupuesto EXCEPCIONAL en cuanto a inversiones se refiere.

Esta alcaldía hace votos porque en el futuro se pueda disponer de presupuestos de análoga naturaleza. Pasaia LO NECESITA y además, SE LO MERECE."

- Ondoren, EAJ-PNVko José Luis Goikoetxean, ondoko testua irakurri du:

"Como cuestión previa y con carácter general este Portavoz y en consecuencia, el Grupo al que representa, quisiera trasladar las extrañas y preocupantes sensaciones adquiridas durante el tiempo utilizado para el análisis conjunto de este presupuesto, análisis por cierto, en el que no se digno a participar Izquier Unida-Ezker Batua (IU/EB). A nuestro entender la Alcaldía y el Partido Socialista se han limitado a intentar escenificar políticas de consenso, algo de lo que, y a los resultados en esta materia me remito, se carecía de la más mínima voluntad política.

Entiendo que debo explicarme. La afirmación anterior me ubica inexcusablemente en todo el proceso de análisis y aprobación de los presupuestarios correspondientes al pasado año 2004, presupuestos en los que se coincidía básicamente en la necesidad de realizar actuaciones encaminadas a:

- Estudiar y propiciar en su caso, dadas las carencias analizadas, la ampliación de la plantilla en materia de medios humanos cualificados (básicamente titulados superiores).
- Aplicar políticas de ajuste presupuestario en materia de gasto de funcionamiento (cap. II), dado el carácter excepcional del ejercicio 2004.
- Ajustar reordenando el programa Izartu.
- Programar el gasto para inversión en función a la capacidad de absorber obras por parte del ámbito responsable.
- Utilizar progresivamente la capacidad de endeudamiento con criterios de equilibrio.
- Mantener el equilibrio presupuestario real (extrapolado en el tiempo) por operaciones corrientes.

Conscuentemente, este Grupo Político municipal de EAJ-PNV no entiende como se puede pasar de ser altamente responsable en el ejercicio 2004, tal y como se le reconoce por escrito desde la Agrupación Local del Partido Socialista, y en este momento ser todo lo contrario, aunque o se haya cambiado de política presupuestaria, y a las enmiendas presentadas me remito, con relación a los criterios presupuestarios manejados el año pasado.

Esta valoración junto al nulo interés, por no decir desdén, por debatir y por supuesto negociar nuestras enmiendas, nos hace dudar si alguna vez ha habido voluntad de generar políticas acordadas, o por el contrario, lo único que ha primado en la Alcaldía, ha sido el acordar lo que sea con tal de aprobar un presupuesto que luego, lo más probable, ya se incumplirá. A mayor abundamiento y en este acto, reafirmo la voluntad de los Grupos firmantes de la enmienda a la totalidad de consensuar un presupuesto para Pasaia, siempre hemos estado predispuestos, los demás, salvo que existan otros condicionantes externos a los propios presupuestos, nos han demostrado todo lo contrario.

En este contexto y como análisis inicial de nuestro desencuentro, quisiera desgranar algunas consideraciones o criterios que entendemos básicos y que fueron, en su momento, adecuadamente expuestos a la Alcaldía, con el fin de explorar la posibilidad de consensuar, en su caso, un proyecto presupuestario para este año 2005 y que se concreta en:

- Utilizar el patrimonio como una herramienta para la obtención de recursos presupuestarios.
- Disponer de aquellos recursos humanos justos pero suficientes, necesarios para la optimización, desarrollo, control y seguimiento de las diversas políticas presupuestarias.
- Controlar y ajustar el gasto, mejorando el equilibrio presupuestario real (extrapolado en el tiempo) por operaciones corrientes. Se constata en este momento y una vez incorporadas al proyecto presupuestario, las enmiendas dictaminadas favorablemente, un desajuste estimado (homogeneizada con criterios de temporalidad la información) muy importante entre los ingresos y los gastos denominados corrientes.

| | |
|---|---|
| ➢ Ingresos corriente estimado (enmendado) | 15.118.478 |
| ➢ Gasto corriente estimado (enmendado) | 14.991.381 |
| Ajustes por: | |
| Fondo de valoración personal | 234.947 |
| Limpieza viaria (difª anualidad) | 383.333 |
| Carga financiera previsional (difªcorregida) | 427.058 |
| ➢ Gasto corriente (enmendado y ajustado) | 16.036.719 |
| ➢ Desajuste observado | 918.241 |

- Reordenar el programa cofinanciado Izartu.
- Entender el recurso al endeudamiento y con criterios de equilibrio, como una herramienta que posibilite el desarrollo de aquéllas políticas de inversión consideradas de interés municipal.

Asimismo y con relación al estado de ingresos del proyecto presupuestario dictaminado, quisiera trasladar nuestra preocupación por el desconocimiento observado de la materia y total indiferencia a los planteamientos de nuestras enmiendas, con informe de los servicios técnicos en algunos casos, carente de todo conocimiento de la realidad y en consecuencia, muy preocupante para los intereses presupuestarios de nuestro municipio.

Como podéis observar y me remito a una lógica y adecuada comprobación, algunas de las enmiendas al estado de ingresos han sido dictaminadas desfavorablemente, con un total desconocimiento del tema, sin comprobación e incumpliéndose los acuerdos presupuestarios del pasado ejercicio 2004, y en otras enmienda, ni siquiera se propuso una infracción, aun conociéndose por informe técnico la existencia del derecho económico.

- N/ enmienda nº 27, con independencia de la finalidad total que perseguía, en la motivación se especifica claramente la obligación de presupuestar 107.753 € procedente del programa Perco anterior (presupuesto año 2004 enmienda nº 11 aprobada).
- N/ enmienda nº 28, importe necesario complementar de conformidad con la totalidad del programa inversor junto a lo dispuesto por la Resolución del 30.12.2002 del Viceconsejero de Vivienda (BOPV nº55 de 18.03.2003).
- N/ enmienda nº 29, importe obligado presupuestar (100.000 €) procedente del ejercicio anterior (presupuesto año 2004 enmienda nº12 aprobada).
- N/ enmienda nº20, debería haber sido transaccionada, máxime, si el propio informe del Area de Urbanismo reconoce, aun no existiendo convenio urbanístico, un ingreso provisional de 66.000 €,

- N/ enmienda nº21, no se descarta por la Intervención la posibilidad de obtener ingresos por este concepto que habiliten nuevo gasto en el presupuesto.

Sobre el gasto y con independencia de lo ya indicado con carácter general anteriormente, quisiéramos reafirmarnos en lo ya manifestado en n/ enmienda nº 55 con relación a la propuesta presupuestaria de esternalizar la limpieza viaria, que básicamente establece junto a nuestra negativa, la necesidad de homogeneizar la información a manejar a la hora de tomar decisiones pues de lo contrario, las conclusiones estarían viciadas de origen. Consecuentemente entendemos se debe dar una oportunidad al servicio y explorar vías intermedias, como la creación y puesta en funcionamiento de una Sociedad Anónima de capital municipal exclusivamente, pero siempre dotada de medios suficientes.

A este respecto nos preocupan afirmaciones recogidas en las conclusiones del documento, no firmado, denominado Memoria justificativa para la contratación de Servicio de Limpieza Viaria (contratación complementaria) y que en su primera conclusión dice literalmente:

"La opción de aumentar la plantilla, compromete los recursos en gasto corriente con carácter irreversible, es decir a perpetuidad, mientras que la contratación publica permite que el aumento de gasto, si la experiencia no fuera satisfactoria, podría suprimirse".

Por último entiendo que el documento que nos ocupa, carece de los oportunos informes de legalidad y en consecuencia, del cumplimiento preceptivo de lo dispuesto en la Norma Foral 21/2003, de 19 de Diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y muy especialmente, en lo relativo al cumplimiento de lo establecido en materia de equilibrio presupuestario (ahorro neto) junto a la obligación de presupuestar, tanto la totalidad de los derechos que se prevean liquidar así como en materia de gastos, los créditos necesarios para atender los gastos susceptibles de ser reconocidos."

- Ondoren, EAko ordezkari Miriam Cano and.ak ondokoa adierazi du hitzez hitz:

"Como es sabido, este año, las enmiendas las hemos presentado conjuntamente Eusko Alkartasuna y Eusko Alderdi Jeltzaileak-PNV, y la defensa de las mismas la va a realizar su portavoz, persona que consideramos con sobrada experiencia y con un gran conocimiento del Ayuntamiento pasaitarra. Pero ello no es óbice para que desde Eusko Alkartasuna hagamos una serie de reflexiones ante el documento, que hoy, sin lugar a dudas, se va a aprobar.

En 1º lugar, decir que nuestro voto va a ser que NO. Un NO con mayúsculas. Pero no un no por el no. Es un NO a un presupuesto que hipoteca seriamente el futuro de nuestro municipio por el peligroso nivel de endeudamiento que se alcanza. Hipoteca que impedirá a corto plazo una política de inversiones medianamente aceptable para nuestro pueblo. Es un NO a un nivel de endeudamiento inasumible por este Ayuntamiento y que debido a la falta de capacidad de ejecución manifiesta del actual equipo de gobierno no servirá más que para tener que pagar por obras no realizadas. Es un NO a eliminar el URBAN de Trintxerpe, ya que creemos que han esperado mucho tiempo todos los trintxerpetarras y depositado grandes esperanzas en las actuaciones que ese dinero pudiera posibilitar. Es un No a unos acuerdos que se basan sola y exclusivamente en pactos económicos entre las partes.

Analizado el resultado del acuerdo entre el equipo de gobierno y el Partido Popular llegamos a una conclusión. Por un lado que el PP, gracias a Dios, no gobernará nunca en Pasaia y que por lo tanto en un futuro siempre podrá seguir ejerciendo un cómodo papel desde la oposición. Y por otro lado el PSOE parece mas bien que actúa guiado en base a impulsos irrealizables en vez de con verdaderos criterios de oportunidad, más acordes con nuestra realidad y que en un futuro den como resultado la supervivencia económica de nuestro municipio.

Con respecto a Ezker Batua, qué decir. Un partido, cuyos representantes ni se han dignado aparecer en las conversaciones sobre el presupuesto mantenidas con la oposición lo dice todo. Por lo menos para nosotros y no nos merece ninguna otra reflexión. Ah! Conversaciones que más parecían un lavado de imagen debido a las críticas recibidas el año pasado que a un verdadero espíritu de consenso.

Creo que con la argumentación barajada en la enmienda a la totalidad esta todo meridianamente claro. No existe programación, no hay proyecto, no hay capacidad de ejecución, no existente negociaciones ni gestión ante otras administraciones y se actúa en base a las necesidades y a la finalización de plazos.

Si es cierto, que en su momento, desde nuestro grupo votamos a favor de incluir a nuestro municipio y a algunos de sus proyectos en diferentes programas de ayudas. Pero eran proyectos para ser ejecutados en 4 ó 5 años como mínimo y no en uno. Sí, es verdad que los políticos están para hacer política, pero también es cierto que están para administrar el dinero público. Y lo que no se ha sido capaz de hacer en el último año y medio largo, nadie nos va a convencer que este equipo de gobierno va a ser capaz de ejecutarlo en los próximos 10 meses. Hacer política es también saber decir “no” a ciertas ayudas cuyo coste final es bloquear la administración en un plazo de 3 ó 4 años. Todos sabemos que son ayudas, excepto el URBAN, que se ponen a disposición de las entidades locales periódicamente. Y hacer votos, como hace la alcaldesa en su memoria para que en el futuro este Ayuntamiento pueda disponer de presupuestos de análoga naturaleza, es sino una tomadura de pelo, sí un brindis al sol. Si hay grandes dudas que podamos hacer frente al pago del endeudamiento que se propone, difícilmente podremos hacerlo a uno multiplicado por cuanto, 2,3, 5 añols? Y nadie dice que Pasaia no lo necesite y mucho menos que no se lo merezca, pero hay que actuar con responsabilidad y sobre todo con realismo. Cuando en una casa se necesitan acometer diversas obras, lo primero que hay que saber es el coste y la capacidad de uno mismo para hacer frente a la deuda que se vaya a adquirir. Y si todo a la vez no es posible, se establecen unos órdenes de prioridades. Nadie puede ni mucho menos debe endeudarse por encima de sus posibilidades.

Y como puntualización a la memoria, ya que de ella hablábamos. Afirmar que estos presupuestos son de un marcado carácter social, seria cierto si el crecimiento en ese concepto hubiera sido importante. No el 1,38% que se nos plantea. Gracias a personas que durante muchos años han trabajado desde el área social, hoy Pasaia tiene fama por la cobertura que sus servicios alcanzan . Con un crecimiento como el planteado, lejos se está de ser ambicioso, más bien se puede considerar un presupuesto continuista. Y mejor eso que ir para atrás como los congrejos, actitud difícilmente sostenible por un equipo de gobierno de izquierdas.

De todas formas, hoy el equipo de gobierno podrá dormir tranquilo. Habrá aprobado “sus” presupuestos, no los que Pasaia necesita y gracias a su pacto con el PP ha sacado adelante la legislatura. Ya no deberá negociar ni pactar con nadie de la oposición ningún presupuesto más.

No vamos a entrar en polémicas ni discusiones estériles. Esta es nuestra opinión y serán los actos del equipo de gobierno y sus extrañas alianzas los que nos hagan cambiar de parecer. Tiempo al tiempo.

Nos imaginamos que hoy, al igual que en la Comisión de Hacienda del pasado día 09 se nos pasará el rodillo (extraña forma, donde las haya, de querer llegar a acuerdos). Pero a cada uno le tocará responder de las responsabilidades asumidas en el día de hoy.

Nada más. Eskerrikasko."

- Ondoren, Jesús Mª García Gardek, EB-IUko zinegotzi-taldearen izenean, adierazi du Gobernu Taldea azaroaz gero ari dela aurrekontu honetan lanean eta hainbat bilera egin dituela. Bilera horietan Gobernu Taldearen ordezkaria alkatea izan da eta berak negoziatu du aurrekontua. Beraz, haren taldeak prozesuan parte hartu du eta aurrekontu hauen ardura euren gain hartzen dute.

- Guillermo Sánchez-Berra, PPko zinegotzi-taldeko eledunak, adierazi du aurten gauzak ondo egin direla, aurreko urteetan ez bezala; izan ere, aurrekontu bat edukitzeko urrats egokiak eman dira. Bere garaian aurrekontua aurkeztu zen eta negoziatu egin da talde guztiekin banan bana bildu ondoren. Iaz aurkakoa gertatu zen, aurrekontuen onarpenea Gobernu Taldeak eta EAJ-PNV koalizioak ez zien gainerako taldeei iritzia emateko edo parte hartzeko aukerarik eman.

  Bestalde, EAko zinegotzi-taldearen eledunaren hainbat adierazpenei erantzun die. Jainkoari esker PPk ez duela Pasaian gobernatuko baieztapenari dagokionez, adierazi du talde hori Pasaian hazten ari dela azken 6 urteetan. Alkateak legealdia PPri esker aurrera aterako duelako baieztapenari dagokionez, adierazi du iaz EA/EAJ-PNV koalizioaren laguntzarekin atera zela aurrera. Bere iritzian aurrera atera den bakarra ekitaldi honetako aurrekontua da. Eta horri eman dio babesa bere taldeak.

  Azkenik, bere iritziz aurkeztutako aurrekontua guztiz pasaitarra eta aurrerakoia da.

- Ondoren, Lore Suárez and.ak, PSE-EE zinegotzi-taldeko eledunak, ondokoa adierazi du:

  "Estamos ante el segundo presupuesto de la legislatura, pero los socialistas en Pasaia ya habíamos traído cuando gobernamos en el 95/99, presupuestos en todos los ejercicios de la legislatura. Rompiendo con ello con una larga tradición de presupuestos prorrogados que era una practica a la que se acudía con regularidad, lo que es decir lo mismo que no había presupuestos.

  Pero si los socialistas siempre hemos hecho los deberes y hemos propuesto presupuestos, es verdad que estos solo pueden salir adelante si cuentan con mayoría suficiente.

  El hecho de haberlas conseguido hasta ahora, incluso hoy que se precisa mayoría absoluta, significa que nuestras propuestas siempre han sido serias.

La Memoria de Alcaldía que acompaña al presupuesto resume el espíritu de la propuesta presupuestaria, y solo cabria remitirse a ella para los aspectos esenciales del presupuesto.

Pero el Debate preliminar ha dispuesto también las posiciones de los grupos políticos y ha definido sus puntos de vista.

Así, los que hoy se oponen a este Presupuesto diciendo que aumenta el endeudamiento de la Entidad, son los mismos que en una noche quisieron endeudar al Ayuntamiento y fuera de toda previsión presupuestaria en una tercera parte del total que recoge nuestros presupuestos 2005.

Esto evidencia que PNV y EA, el debate de los presupuestos lo convierten en una mera confrontación con el Gobierno, para ellos no existe la coherencia.

.

Por eso les pedimos a los proponentes que si pueden nos ahorren el calvario de tener que escuchar nociones y argumentos para justificar sus enmiendas parciales, que en definitiva, de ser aplicadas no llevan a otra parte que al déficit descontrolado en cuestión financiera porque hace del cuento de la lechera un principio económico y nos lleva en lo político a la venalidad más absoluta.

Si no queda otro remedio tendrán que ser discutidas, y no habrá inconveniente, pero Uds. Saben de antemano que no prosperaran, y de antemano deben saber que no aceptaré lecciones de nadie, si se pretende alargar el debate con sofisticados discursos. Por lo que la discusión de cada enmienda parcial tiene una sola intervención de cinco minutos por enmienda, sin replica alguna.

Rechazadas las enmiendas, si esto fuera el Gobierno Vasco quedaría el presupuesto aprobado automáticamente, sin embargo aquí se votará expresamente el presupuesto, y quedará así aprobado, porque nosotros, Señores de la oposición, no sacamos los presupuestos con malabares, sino con coherencia y responsabilidad, y ante todo buscando la identificación de los mismos con las necesidades históricas. Hicimos presupuestos restrictivos cuando fue necesario sanear las finanzas Municipales, y hacemos presupuestos expansivos cuando la coyuntura y las necesidades así lo requieren.

Agradecimiento a los grupos políticos que respaldan este presupuesto, pues las verdaderas bondades del mismo no son para mayor gloria de este Gobierno, sino de las necesidades reales de los pasaitarras, y con los medios disponibles para atenderlas, que por supuesto nunca serán suficientes.

Nuestro mayor empeño a partir de hoy será lograr que la ejecución de estos presupuestos se impulse y se desarrolle a los ritmos que serían deseables, vamos hacer de ello el verdadero objetivo de gestión, alcanzar niveles de ejecución que estén a la altura del acontecimiento que constituye este Presupuesto.”

- Ondoren, EAJ-PNVko zinegotzi-taldeko ordezkari José Luis Goikoetxeak adierazi du bere taldeak 54. zuzenketa kendu nahi duela. Bere ustez ondoko gaiek lehentasuna izan behar dute: San Pedroko alkateordetzaren konponketak eta Pasaiak TKE ligan parte-hartzearen alde egiteak.

Aurreko parte-hartzea kontuan hartuta, alkateak, Tokiko Korporazioen Antolamendu eta Funtzionamenduaren Araudiaren 97.5. artikuluarekin bat, bere garaian EA/EAJ-PNVko zinegotzi-taldeak aurkeztu zuen zuzenketa (54. zk.a zuena) kendutzat jotzen du, eta irizpena bozkatzea proposatu du ondoren zehazten den eran:

**Lehenena.-** Hasteko, Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 9an irizpena emandako zuzenketak batera bozkatzea proposatzen da, ondoko zuzenketak izan ezik: Partidu Popularrak aurkeztutako 10. zuzenketa, EA/EAJ-PNVk kendu duen 54. zuzenketa; eta 72tik 79ra bitartekoak, horiek ondoren bozkatuko dira.

**Bigarrena.-** Ondoren banan-banan bozkatuko dira 20, 27, 28 eta 29. zuzenketak, EA(EAJ-PNVk aurkeztuak eta irizpenik ez dutenak, eta PPk aurkeztutako 10.a.

**Hirugarrena.-** Azkenik 72tik 79ra bitarteko zuzenketak batera bozkatuko dira.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza ondokoa izan da:

**Lehena**

- Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 9an irizpena emandako zuzenketak, 10, 54 eta 72tik 79ra bitartekoak izan ezik, onartu egin dira ondoko botoekin: PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) taldeetako BEDERATZI zinegotziek aldeko botoa eman dute, eta EAJ-PNV (4) eta EA (3) taldeetako ZAZPI zinegotziek aurkako botoa eman dute.

**Bigarrena**

- PPk aurkeztutako 10. zuzenketari udal arkitektoaren txostenean oinarritutako aldaketa egin zaio, hau da, 100.000tik 150.000ra aldatu da. Zuzenketa, egindako aldaketarekin, onartu egin da ondoko botoekin: PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) taldeetako BEDERATZI zinegotziek aldeko botoa eman dute, eta EAJ-PNV (4) eta EA (3) taldeetako ZAZPI zinegotziek aurkako botoa eman dute.

- EA/EAJ-PNVko zinegotzi-taldeak aurkeztutako 20. zuzenketari arkitektoaren txostenean oinarritutako aldaketa egin zaio, bertan 66.000 euroko sarrera aurreikusten da. Zuzenketa hori aho batez onartu da.

- EAJ-PNVko zinegotzi-taldeak aurkeztutako 28. zuzenketa, degradatutako guneei buruzkoa, aho batez onartu da, Ekonomia Sailak eta udal arkitektoak aztertu eta zuzenketaren aldeko txostena egin ondoren.

- EAJ-PNVko zinegotzi-taldeak aurkeztutako 27 eta 29. zuzenketak mahai gainean geratu dira, behin betiko txosten teknikoen zain.

**Hirugarrena**

- 72tik 79ra bitarteko zuzenketak, Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordearen baitan otsailaren 9an aurkeztuak, errefusatu egin dira ondoko botoekin: PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) taldeetako BEDERATZI zinegotziek aurkako botoa eman dute, eta EAJ-PNV (4) eta EA (3) taldeetako ZAZPI zinegotziek aldeko botoa eman dute.

- Ondoren, Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordeak 2005eko otsailaren 9an emandako irizpenari buruz EAJ-PNV taldeak aurkeztutako boto partikularra bozkatu da. Errefusatu egin da ondoko botoekin: PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) taldeetako BEDERATZI zinegotziek aurkako botoa eman dute, eta EAJ-PNV (4) eta EA (3) taldeetako ZAZPI zinegotziek aldeko botoa eman dute.

- Azkenik, irizpena osotasunean onartu da ondoko botoekin: PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) taldeetako BEDERATZI zinegotziek aldeko botoa eman dute, eta EAJ-PNV (4) eta EA (3) taldeetako ZAZPI zinegotziek aurkako botoa eman dute.

**3.- Plantilla Organikoa eta LPZ**

Ondoko arau eta legeak kontuan hartu dira: Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 90. artikulua; uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 13. artikulua, hurrengoak eta 20 eta 21. artikuluak; abenduaren 19ko Aurrekontu Foru Arauaren 15. artikulua. Bertan dauden zinegotzien gehiengoz Udalbatzari ondoko proposamena egiten zaio:

AKORDIOA

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea 2005eko ekitaldiko Udal Plantilla Organikoari eta Lanpostuen Zerrendari; beharrezko izapideak egin ondoren espedientean jasota daudenak.

BIGARRENA.- Akordio hau hamabost egunez jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarrita, interesdunek alegazioak egiteko aukera izan dezaten.

Alegaziorik aurkezten ez bada, Plantilla behin betiko onartutzat joko da.

HIRUGARRENA.- Aurreko plantillan beharrezkoak diren aldaketak egingo dira, etorkizunean kale-garbiketa zeharka kudeatzearren –hutsik dauden plazak amortizatu eta titularra dutenak aldatu–. Aurrez, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa bideratu eta onartuko da.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza ondoko hau izan da: PSE-EE (5), PP (2) eta EB-IU (2) taldeetako BEDERATZI zinegotziek aldeko botoa eman dute, eta EAJ-PNV (4) eta EA (3) taldeetako ZAZPI zinegotziek aurkako botoa eman dute.

- Parte-hartzeen atalean ondokoak esan dituzte:

  - José Luis Goikoetxea jn.ak, EAJ-PNVko zinegotzi-taldeko eledun gisa, adierazi du bere taldeak ezin duela aldeko botoa eman ondoko arrazoiengatik: batetik, udalean ez da berrantolaketarik egin, bereziki goiko egituretan, bere taldeak proposatzen zuen bezala; eta gainera, kale-garbiketako zeharkako zerbitzuari buruz duten iritziaren aurka doa.

  - Marivi Roteta and.a, EAren izenean, bat dator EAJ-PNVrekin, batez ere kale-garbiketaren gaiari dagokionean; izan ere, bere taldeak beti izan du behin-behineko langileekiko kezka. Barkamena eskatu du Informazio Batzordean kale-garbiketa pribatizatzearen aldeko botoa eman zutelako eta erantsi du EAJ-PNVren proposamena aztertu dutela, kale-garbiketa zuzenbide pribatuaren bidez zuzenean kudeatzeari buruzkoa, eta etorkizunean oso kontuan hartzekoa iruditzen zaiola.

  - Lore Suárez and.ak, PSE-Eeko zinegotzi-taldearen eledunak, adierazi du plantilla eta LPZ hau onartzeak ez duela esan nahi plan eta aurreikuspen berririk behar ez denik; hala ere, eztabaida bere garaian egin beharko da, EPEaren bidez hutsik dauden lanpostuak betetzeari ekiten zaionean.

    Kale-garbiketari dagokionez, adierazi du Gobernu Taldeak hasierako jarrerari eusten diola.

  - Gai-zerrendatik kanpo, EAJ-PNVko zinegotzi-taldeko José Luis Goikoetxea jn.ak ondoko akordio edo konpromisoa hartzeko proposamena egin du: aurrekontuan aurreikusi baino sarrera gehiago badago, horiek zorra gutxitzeko erabiliko dira eta ez proiektu berriak edo gastu-kredituak finantzatzeko.

  - Alkateak adierazi du balizko proposamen hori ez dela juridikoki bideragarria eta beraz, eztabaida hori atzeratu egin beharko litzatekeela, aurreikusi baino diru-sarrera gehiago dagoen unera arte, halakorik gertatzen bada.

Eta, beste gairik ezean, 11:00etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.